


bestiak ezagutu ez aŕen be, Jon'ak beti ezagutzen eban: alan, Kepa ri Tiberiades itxaseŕtzean esan eutsan: *Dóminus est, Jauna da*. Ezautze au, Jeronima Deunak diñonez, neskuztasunez soŕtzen yakon.

Judea eŕkitik azken urten zan Belduba bera zan Asia aldera juan zan eta Epeso urijan bixikeraz geratu zan; emen ainbat kistaŕ zintzo beste batzuk be kistaŕtu ta berotzen ebezenak egin euzan. Egifen eban lana Domeken Kaiser deungiak eza-guturik, eta urtetsuba zala begiratu-barik, estuntzaz lotuta Efoma'ra eruan eban; bildurŕe Kisto Jaungoiko'tzat autoŕtu eban, eta nekaldutiaŕen gaimel irakiñezko ontzi andijan saŕtu eben: Alorodunak ba-ña, saŕtu eben baño edeŕago, garbijago ta gastiago atara eban. Zingez beterik zan Patmos ugaftera atzeŕiŕtu eben, Goizpaŕa emen be iragafi eban, eta ango au-zuak kistaŕ-egin euzan. Goi-iragafi bede-gafak, ixan euzan eta eurak atzaltzeko Apokalipsis idaztija idatzi eban. Domeken il zanian, baŕiŕo Epeso'ratu zan, eta, Sofkalde'ko gotzañak eskatuta, Goizpaŕa idatzi eban, goi-goyetatik asita; ba Autija'ren jatofi jaunguaŕa askaldijan jarten dau, Autija-bidez iraskundiaz jaŕaitzeko. Iru idazki orokaŕak be idatzi euzan: euren-tan, eban jaumafasun eta geidemafasun gafa agiri jaŕten dau. Saŕtzaruau, bera ibili ezinda, kistaŕen batzaŕetara iñok eruan-biaŕ ixaten eban, mafasunez sutau-ta ta gorifuta zan lez, alkaŕ maŕe-ixan zedixela esatez ez eban iñoz gogañik egi-fen, eta, bein baten, alkaŕ maŕe-ixateko oŕenbeste bidaf zer dala-ta aŕatzen eban, iŕaundu eutsoen. Berak erantzun eban: «*Au Jaunaren agintzea da, ta berau be-tetan daunak biaŕ dan gustija egifen dau*. Eun urtedun ixatera eldu zan eta nekalez il etzan Beldu bakaŕa ixan zan. Ezagutzen eben orok, bera ludijan galdu-biaŕak emo-

ten eutsen min baŕu-baŕukua negaf sami-ñez agiri jaŕten ebela, Epeso'n il zan, Kis-to'k *ostoftzen semia* dikufan Boanerges ixena ezafi eutsan, Deun-Jon, Belduba ta Goizpaŕkilia. JOKIN.

BELEN'EN

*Ixo...! ixo...! Aurtxua lo dago
bere Amaren altzuan;
ixo...! ara gotzonak ere
ixilik bere inguruan.*



*Maite-maiterik magalian
Neskutzak Aua lo dauka;
begitzen dio... ¡zoramena!
¡lotan Josu iripaŕeka!
eta Miren'ek atsegiñez
biotza taupa-taupaka
moxu eman nai... eta bildur,
Maitea itxartuko du ba.*

*Begitzen die gotzonai, ta
begiyaz poza dasate;
gotzonak baita Miren'i
iripaŕe dagiote;
beŕiŕo Neskutz ta gotzonak
Josu'ri begira daude,
¡ai ze edeŕa!... berai begira
iñola ere ezin ase.*

*Urbiltzen zayo Joseba're
geldika, ez itxartzeko;
ixil-ixil maite goritan
Aufari begira dago;
gogoan gozo atsegiñak
¡ai! gañez egiten dio,
ta belaunbiko erorten da
Maite-maitea gurtzeko.*



*Ixo...! ixo...! Aurtxua lo dago
bere Amaren altzuan;
ixo...! ara gotzonak ere
ixilik bere inguruan*

TENE.